

Konfigurazio
Eskuliburua



EF4KTUR KONFIGURAZIO ESKULIBURUA


ef4ktur konfigurazio eskuliburua	2
1. Oinarrizko konfigurazioa	3
1.1 Orokorrak	4
2. Ziurtagiriak	5
2.1 Txartelan edo Nabigatzailean instalatutako ziurtagiriak	6
2.2 Software ziurtagiriak (*.p12, *.pfx)	6
3. Posta	7
3.1 Ejemplo para GMAIL	7
3.1.1 NOLA LORTU GMAIL-ko APLIKAZIO PASAHITZA	8
4. Proxy	11
5. Sinadura aurreratua	12

I. OINARRIZKO KONFIGURAZIOA

Fakturak jaulkitzea da fakturazio elektronikoaren funtzionalitaterik oinarritzkoena. Faktura horiek ziurtagiriak erabiliz sinatzen dira, eta funtzionaltasun horrekin bakarrik has gaitezke elektronikoki fakturatzeko.

Atal honetan oinarritzko fakturazioari helduko diogu, hain zuzen ere, ef4ktur fakturak jaulkitzeko eta bidaltzeko gai izan dadin.


ef4ktur abiatu ondoren, zuzen konfiguratzeko izango da lehen lana. Horretarako, aukeratu **“Tresnak > ezarpenak”**.



1.1 OROKORRAK

Atal honek aplikazioaren alderdirik oinarritzkoenak konfiguratzeko aukera ematen du:

- Aplikazioaren hizkuntza aldatu ahal izango dugu.
- Faktura sortzeko hizkuntza aldatu ahal izango dugu PDFan gordetzeko.
- Azaleko irudia eremuan aukera izango dugu aplikazioa hasi bezain laster agertuko den irudia definitzeko.
- Aukera izango da, halaber, jaulkita aldi jakin bat daramaten fakturak artxibatzeko.
- Ef4ktur aplikazioak errore-mezu guztiak testu-fitxategi batean gordetzea nahi badugu, ondoren aztertu ahal izateko, Errore-arrastoetarako log-a aktibatu aukera aktibatu ahal izango dugu.
- Azkenik, aukera izango dugu ef4ktur aplikazioak fakturae estandarren bertsio jakin baterako fakturak sortzeko.
- Zirriborro, Jaulkitakoak, Bidalitakoak eta Artxibatutakoak egoeretako fakturen zerrendan agertuko diren fakturen kopurua ezar daiteke. Erakutsitakoak baino faktura gehiago egonez gero, “Faktura gehiago” botoia agertuko da, botoi honetan klik eginda hurrengo fakturak azalduko dira zerrendan.




2. ZIURTAGIRIAK

Ezinbestekoa da faktura jaulkitzea, horrek balioa izan dezan. Beraz, ziurtagirien atala da konfiguratu behar dugun lehena. Atal honetan zein ziurtagiri-mota erabili nahi dugun hautatu ahal izango dugu:

- Fitxategia (.p12, .pfx)
- Txartela/Nabigatzailea

Erabili beharreko ziurtagiri-mota hautatu ondoren, hurrengo azpiatala konfigura daiteke:




2.1 TXARTELAN EDO NABIGATZAILEAN INSTALATUTAKO ZIURTAGIRIAK

Aukera hau aukeratuko da ziurtagiria txartelean, token USB edo nabigatzailean instalatuta ba dago.

2.2 SOFTWARE ZIURTAGIRIAK (*.P12, *.PFX)

Atal honetan “.p12” , “.pfx” fitxategiaren, faktura sinatzeko ziurtagiria ateratzeko erabiliko denaren, kokalekuaren ibilbide osoa eskatzen da. Browse botoiaren gainean egingo dugu klik, eta bertan agertuko zaigu fitxategia aurkitzen lagunduko digun arakatzaila.




3. POSTA

ef4ktur gai da sinatutako faktura bat hartzaileari bidaltzeko posta elektronikoaren bidez, lana erraztuz. Funtzionalitate hau erabiltzeko, aurrez konfiguratu behar dira postaren lehentasunak:

- **Ostalaria:** Faktura bidaltzeko ef4ktur programak zein posta-zerbitzaritara konektatu behar duen adierazteko SMTP zerbitzuaren helbidea.
- **Portua:** Zerbitzuaren portua. SMTP zerbitzurako portu estandarra 25 da.
- **Erabiltzailea:** Zerbitzura sartzeko erabiltzailearen izena.
- **Pasahitza:** Goian ezarritako erabiltzaile-kontuari lotutako pasahitza.
- **TLS:** Komunikazio zifratua gaitzea zerbitzariarekin, zerbitzariak hori onartzen badu.
- **Igorlea:** ef4ktur bidez bidalitako mezu elektronikoa jasotzen duenean hartzaileak igorlearen eremuan ikusiko duen posta elektronikoko helbidea.

Atal hau konfiguratu ostean, jaulkitako fakturak hartzaileari bidali ahal izango zaizkio, kanpoko beste inolako tresnarik erabili gabe.



3.1 EJEMPLO PARA GMAIL


- **Ostalaria:** smtp.gmail.com
- **Portua:** 587
- **Erabiltzailea:** usuario@gmail.com
- **Pasahitza:** aplikazio pasahitza
- **TLS:** aktibatua
- **Igorlea:** usuario@gmail.com

Oharra:


- Aplikazio pasahitza GMAILen ezarritako **“contraseña de aplicación”** izango da, egiaztapena bi urratsetan aktibatu ondoren.

3.1.1 NOLA LORTU GMAIL-KO APLIKAZIO PASAHITZA

Gmailen hasitako zure saioan “Gestionar tu cuenta google” atalera joango zara:




“Gestionar tu cuenta google” atalera sartu:




Hortik “Seguridad” atalera:



“Cómo inicias sesión en Google” atalera joan eta “Verificación en dos pasos” aukera aktibatu:



Aktibatu ondoren:



“Verificación en dos pasos” atalera sartzerakoan, “Contraseña de aplicaciones” aukera berri bat agertuko da azpian:

Contraseñas de aplicaciones

Las contraseñas de aplicación no son recomendables y, en la mayoría de los casos, son innecesarias. Para proteger tu cuenta, usa Iniciar sesión con Google para conectar aplicaciones a tu cuenta de Google.



“Contraseñas de aplicaciones” atalera sartu eta egin, “aplicación = Correo y dispositivo = Ordenador con Windows” eta “GENERAR” botoian klik egin.

← Contraseñas de aplicaciones

Las contraseñas de aplicación te permiten iniciar sesión en tu cuenta de Google desde aplicaciones instaladas en dispositivos que no admiten la verificación en dos pasos. No tendrás que recordarlas porque solo tienes que introducirlas una vez. [Más información](#)

No tienes ninguna contraseña de aplicación.

Selecciona la aplicación y el dispositivo para los que quieres generar la contraseña de aplicación.

Correo ▼

Ordenador con Windows ▼

GENERAR

Aplikazio pasahitza duzunean, ef4kturren posta konfiguratzeko orduan, aplikazio pasahitz hori jarri behar da, Gmaileko zure posta-kontuaren pasahitzaren ordeztu.

Preferences

- Orokorrak
- Posta
- Proxy-a
- PDF
- Ziurtagiriak
- Zigilaketa aurreratua

Posta

Posta zerbitzariaren ezaugarriak.

Ostalaria: smtp.gmail.com

Ataka: 587

Erabiltzailea: usuario@gmail.com

Pasahitza: Aplikazio pasahitza

☒ TLS

Igorlea: usuario@gmail.com

OK Cancel

4. PROXY


Zenbait saretan, segurtasun-arrazoiak direla eta, mugak izaten dira konexio-mota jakin batzuetan. Gerta liteke ef4ktur programak internetera egiten dituen konexioetan kalteak izatea muga horiek direla medio. Horrelako kasuetan, proxy bat gaitu ohi du sarearen administratzaileak, bertatik igarotzeko konexio guztiak.

Ef4ktur programak proxy horiek erabil ditzake, horietan barrena ateratzeko internetera, eta beharrezko funtzioak egin ahal izateko.

ef4ktur konexioak proxy horretan barrena igaro daitezen, aplikazioaren Proxy atala konfiguratu behar da.

Atal honetan honako aukera hauek izango ditugu:

- **Ostalaria:** IP helbidea edo proxy zerbitzariaren domeinuaren izena.
- **Portua:** Proxy zerbitzarian adi dagoen portua.
- **Erabiltzailea:** Proxy zerbitzarirako erabiltzailea.
- **Pasahitza:** Proxy zerbitzarirako pasahitza.
- **Salbuespenak:** Konexioak proxy zerbitzaritik igaro gabe konektatzeko IP helbidea edo makinaren domeinuen izenak.
- **Gaitu proxy zerbitzaria:** Funtzionalitatea gaitzeko edo ez gaitzeko aukera ematen du, ezarritako konfigurazioa galdu gabe.



5. SINADURA AURRERATUA

ef4ktur programaren ezaugarri honek sinadura aurreratua sortzeko aukera ematen du.

Aktibatzeko **Ziurtagiriaren denbora zigilaketa eta errebokazio egoeradun sinadura** aukeratu behar da.

Hartzaile batzuk Sinadura Aurreratua ez dute onartzen. FACE-ko irteera puntuaren salbuespenak atalean Sinadura Aurreratua onartzen ez dute FACE erako webzerbitzuak jarriko dira. Era honetan, nahiz eta konfigurazioan Sinadura Aurreratua jarrita egon oinarritzko sinadura egingo da. Momentu honetan estatuko FACE webzerbitzua bakarrik dago.

